

**1. EZAUGARRIAK:**

**Errezeta mota:** zure errezeta gustukoena, egun hauetan ikasitakoa, beti frogatu nahi izan duzun hori ... Edozein motatako platera izan daiteke: arraina, postrea, pintxoa, arroza ....

**Zer aurkeztu behar da:**

- Plateraren izena
- Osagaien zerrenda
- Elaborazio prozesuaren azalpena
- Plateraren argazkia (emaitza)

Norberak egindako platera izan behar da. Ez du gutxieneko osagairik izan behar.

**2. LEHIAKIDEAK:**

Lehiaketa honetan Aramaion jaiotako edo bertan bizi den edozein pertsonak har dezake parte. Pertsona bakoitzak gehienez hiru errezeta aurkeztu ahal izango ditu.

Bi kategoria berezituko dira:

- Umeak: 12 urte arte
- Nagusiak: 13 urtetik aurrera

**3. AURKEZPEN LEKUA ETA DATA:**

Lanak emailez bidali beharko dira helbide honetara: [itxasokultura@gorbeialdea.eus](mailto:itxasokultura@gorbeialdea.eus) errezetaren izenburuarekin. Errezetarekin batera, plateraren argazkia eta egilearen datuak bidali beharko dira (izen-abizenak, jaiotze data, telefonoa eta helbide elektronikoa).

**Epea:** lanak entregatzeko epea maiatzaren 4an itxiko da.

**Errezeta eta argazkien jabetza:** Udaleko argazki artxiboa osatzeko gordeko dira eta beharraren arabera erabili ahal izango ditu Aramaioko Udalak, beti ere egilearen izen-abizena adieraziz.

**4. SARIAK:**

Sari bakarra egongo da kategoria bakoitzeko.

- Umeak (12 urte arte): Aramaioko denda edo ekoizleengan gastatzeko 50€
  - Nagusiak (13 urtetik aurrera): Aramaioko denda edo ekoizleengan gastatzeko 50 €
- Gainerako partaideen artean bi gazten zozketa egingo da.

**5. EPAIMAHIA:**

Epaimahaia, Kultura batzordeburuak egoki ikusten dituen pertsonak osatuko dute. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.

**6. BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK:**

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea suposatzen du.

Errezeta eta argazki guztiak ikusgai jarriko dira Aramaioko Udalak Interneten duen Flickr kontuan. Eta egoki ikusiz gero, beste kanal batzuetatik ere zabalduko dira.